



DIRU ITURRIAK

Study(H)all sortzeko prozesuan diru-iturriak zeintzuk diren zehaztu behar dira. Gure plana, hasierako inbertsioa egiteko hainbat diru-laguntza eta ekarpen pertsonalen bidez egitea da. Diru gehiago beharko bazen, bankuari mailegu bat eskatzea planteatuko genuke.

Kanpotik diru-laguntzak eskatu edota jaso baino lehenago ezinbestekoa da, enpresaren kide bakoitzak ekarpen pertsonal bat egitea, kasu honetan, 3000 euro ingurukoa izango litzatekeena. Hasierako inbertsio pertsonal horrekin proiektua martxan jarri ondoren, hainbat dirulaguntzarekin kontatuko genuke lanean jarraitzeko. Herriko udaletxeak, adibidez, enpresa txikiak sortzearen grina sustatzeko 1000 bat euro inguruko dirulaguntza eskaintzen du.

Bestalde, programaren diseinuari dagokionez, IparPrint agentziak, plataforma digitalaren diseinua eta garapenerako ematen ditu diru-laguntzak. Honek, enpresek digitalizazioaren trenera igo behar direla defendatzen du. Eusko Jaurlaritzak, trantze horretan laguntzeko asmoa duela dirudi, autonomoak eta enpresak motibatuago senti daitezen beraien proiektu ekintzaileei estaldura digitala ematerakoan. Dena den diru-laguntza programatzaile autonomo bat kontratatzeko kasuan baino ez genuke lortuko, Arazi enpresa kontratatzea erabakitzen badugu ordea ez.



Bestalde, Espainiako estatuak Startup deituriko lege berria argitaratu du. Honen helburua ekintzailtza bultzatzea da. Hiru abantaila nagusi eskaintzen ditu: sozietateen gaineko zerga % 15ean jaisten du lehenengo lau urteetan, startup batean inbertitzeko lehen 100.000 euroak zergarik gabekoak izatea ahalbidetzen du eta inbertsioagatiko kenkaria % 50ekoa izango da lehenengo bost urteetan. Diru-laguntzetaz gainera, guretako bakoitzak 3.000 bat euroko inbertsio pertsonala egingo luke. Hau da, guztion artean 12.000 bat euroko inbertsioa egingo genuke. Gure kalkuluen arabera, negozioa hasteko beharrezkoa dena. Behin plataforma martxan izanda ordea, beste diru-sarrera batzuk izango ditugu aktibo kapitala sortu ahal izateko: Lehenik eta behin plataformaren erabiltzaileek egingo duten kontribuzioa daukagu. Harpidetzako bertsioa erosten duten erabiltzaile individual edota ikastetxeen dirutik. Erabiltzaile indibidualak hilabetean 3 euroko kuota ordaindu beharko dute, ikastetxeek ordea, lizentzia bakoitzarengatik 2,5 euroko kuota ordainduko dute.

Bestalde, Study(H)all-ek Espainiako unibertsitate eta goi-mailako ikasketa zentroen plataforma publizitario bezala jokatuko du. Beraz, hezkuntza zentro hauek enpresaren bezero ere badira. Ondorioz, emandako iragarki zerbitzu honen trukean diru bat jasoko du Study(H)all-ek.

Harpidetzako bertsio ez duten erabiltzaileentzako bestelako iragarkiak ere agertuko dira plataforman, eta horiek ere diru-sarrera bat dira enpresarentzat.



DATAK	INBERTSIO DIRU-SARRERAK	DATAK	KAPITALERAKO DIRU-SARRERAK
martxan jarri baino lehenagoko diru-sarrerak	Ekarpen pertsonala: 3000 X 4 = 12.000 euro guztira.	martxan jarri eta geroko diru sarrerak	Erabiltzaile indibidualen harpidetza: 3 euro/hilean
martxan jarri baino lehenagoko diru-sarrerak	Ipar print (diseinuarendako diru laguntza)	martxan jarri eta geroko diru sarrerak	Ikastetxeen lizentziak: 2,5 euro/hilean ikasle bakoitzeko
			Unibertsitate eta goi-mailako zikloen heziketa zentroen publizitatea
			Bestelako publizitatea
			Udaletxeak emandako laguntza: 1000

N2J TALDEA